

IIEB-REN MEMORIA (2014)

2014. urteari dagokion urteko memoria hau aurkezten dugu, UPV/EHUko irakaskuntzan eta ikerketan etika organoak arautzen dituen Arautegia (II. kap., 6.f art.) onartzen duen UPV/EHUren Gobernu Kontseiluaren 2014eko urtarrilaren 30eko Erabakia betetzeko eta IIEBren eta ebaluazio batzordeen jarduerak eta proiektuak ezagutzera emateko.

AURKIBIDEA

2014KO MEMORIA

- 1.- Bilerak
- 2.- Eskakerak
- 3.- Aholkularitza
- 4.- Irizpenak
- 5.- Jarraipena
- 6.- Jarduerak
- 7.- Hitzarmenak eta MTAk
- 8.- Beste batzorde batzuekin eginiko bilerak
- 9.- Harrera UPV/EHUko batzordeetan
- 10.- Berritzeak
- 11.- Arazoak eta konponbideak

2015EKO PLANA

ERANSKINA 2014ko Kudeaketa Txostena.

2014KO MEMORIA

1.- Bilerak

IIEB: ohiko 2 bilera.

GIEB: ohiko 11 bilera eta ezohiko 2 bilera.

AEEB: ohiko 11 bilera eta ezohiko 2 bilera.

ABIEB: ohiko 11 bilera eta ezohiko 1 bilera.

2.- Eskaerak

GIEB: 77 eskaera berri, 10 eskaera berriro ebaluatzeko, eta 8 eskaera ebaluatu gabe.

AEEB: 69 eskaera berri Ikastegiko Batzorde gisa eta, horien artetik, 68 Gaitutako Batzorde gisa; 30 eskaera berriro ebaluatzeko, eta 1 eskaera ebaluatu gabe.

ABIEB: 41 eskaera berri, 15 eskaera berriro ebaluatzeko, eta 1 eskaera ebaluatu gabe.

Eskaerak guztira: 187

3.- Aholkularitza

Batez beste bost galdera egin zaizkio egunean Idazkaritza Teknikoari, milatik gora urtean (1.100). Galderak izan dira, besteak beste, ikerketako alderdi etikoei, metodologikoei eta juridikoei buruz, ebaluazio eskaeren prozeduren kudeaketari eta alderdi teknikoei buruz, eta inplikaturako beste erakunde batzuen eskakizunei buruz. Ikasleek, berriz, biologia, biomedikuntza, soziologia eta portaeraren arloei lotutako gradu eta master amaierako lanei buruzko galderak egiten dituzte.

4.- Irizpenak

Soilik lehen ebaluazioko irizpenak deskribatzen dira. 2014ko behin betiko datuak egiaztatzeke, ikus eranskina (kudeaketa txostena).

GIEB: aldeko txostenak: 7; aldaketa txikiek baldintzatutako aldeko txostenak: 40; eta, zuzentzeko dauden txostenak: 40. IIEBren aldeko txostenak: 45.

AEEB: aldeko txostenak: 3; aldaketa txikiek baldintzatutako aldeko txostenak: 55; eta, zuzentzeko dauden txostenak: 41. IIEBren aldeko txostenak: 37.

AEEBk Gaitutako Batzorde gisa jardun duen guztietan, txostena aldekoa izan da.

ABIEB: aldeko txostenak: 9; aldaketa txikiek baldintzatutako aldeko txostenak: 27; eta, zuzentzeko dauden txostenak: 7. IIEBren aldeko

txostenak: 32.

5.- Jarraipena

IIEBren eta haren ebaluazio batzordeen egiturak eta, horrekin batera, aldeko irizpena jaso eta jarraipen beharra duten proiektuen kopuruak ezinezko egiten dute jarraipen lanak egitea.

6.- Jarduerak

IIEB

- UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko ERABAKIA egitea eta aurkeztea, *UPV/EHUko ikerketetan eta irakaskuntzan etikako organoak arautzen dituen Arautegia onartzen duena* (EHAA, 32, 2014ko otsaila).
- IIEBren eta hiru ebaluazio eta jarraipen batzordeen (GIEB, AEEB eta ABIEB) laneko prozedura arautuak prestatzea eta onartzea.
- Eusko Jaurlaritzaren Abeltzaintza Sailarekin eta animaliekin eginiko esperimientuen Bizkaiko etika batzordeekin biltzea.
- Bioefekin biltzea, laginak aldatzeko hitzarmenaz aztertzeko.
- Datuak babestea campusetan, 2014ko ikuskaritzari begira.
- Lankidetzan aritzea ikerketako zuzendaritzarekin, Giza Baliabideen deialdia prestatzeko.

GIEB:

- IIEB koadernoak: "UPV/EHUko ikasleak: irakaskuntza jardueraren subjektuak"
- Gomendioen dokumentua: "Gizakiekin eta giza lagin eta/edo datuekin egindako gradu amaierako lanak"
- I. ANCEI Kongresura joatea (Madril).
- Etika Batordeen Sarearen bilerara joatea (Sitges).
- Datuak babesteari buruzko saioak (Alfresco eta segurtasun dokumentua), hiru campusetan.
- Gizakiengan egindako ikerketei buruzko saioa, Soziologiako ikasleentzat.
- Gizakiengan egindako ikerketei buruzko saioa, Donostiako Erizaintza Eskolan.

AEEB:

- Eskaera memorien inprimakiak aldatzea, legedi berriak eraginda.
- Bilera egitea Foru Aldundiaren Nekazaritza Saileko Animalien Ongizateko albitari ikuskatzailearekin eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren animaliekin egindako esperimientuen etika batzorde guztietako kideekin, araua Bizkaian aplikatzeko modua lantzeko.

- Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako foru aldundien organo eskudunekin batera, proiektuak baimentzeko espedienteak izapidetzeko zirkuitu ofiziala eta dokumentazioa bidaltzeko metodoa finkatzea, ikertzaileen baimenak lortzeko epeak murriztuta.
- Hiru foru aldundietako albaitari ikuskatzaileekin biltzea, hiru lurraldeetan izapideak berdinak izan daitezen saiatzeko.
- Mintegi teoriko praktiko batera joatea, UAMra (Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa). Mintegian, esperimenduetan eta irakaskuntzan animalien erabilera komunikatzeko betebeharra eta Bruselara bidali beharreko taula estatistiko berriak (Europako 63/2010 zuzentaraua) landu ziren.
- Unibertsitateen eta Ikerketako Erakunde Publikoen Etika Batzordeen Sareko bilerara joatea (2014ko apirila), 53/2013 ED erkidegoetan aplikatzeko moduak bateratzeko eta araua ikertzaileen eta batzordeetako kideen gustukoa ez dela baieztatuz. Ideiak eman ziren, legearen ondorioak arintzeko.
- Biosegurtasunaren normalizazioari eta kudeaketari buruzko jardunaldira joatea (2014ko iraila). Jardunaldia ABIEBk eta Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrek antolatu zuten, UPV/EHUn.
- Biosegurtasunari eta bioeuspenari buruzko II. biltzar nazionalera (AEBIOS) joatea. Bartzelona (2014ko urria).
- Esperimenduetan animaliak erabiltzeko gaikuntzarako arau berriaren zirriborroari buruzko SECALen Jardunaldira (Laborategiko Animalien Zientzietarako Espainiako Elkarteak) joatea.
- UPV/EHUK antolatutako "Jornada sobre Rederivación y criopreservación" jardunaldira joatea (2014ko abendua).

ABIEB:

- Biosegurtasunari eta bioeuspenari buruzko II. biltzar nazionalera (AEBIOS) joatea. Bartzelona (2014ko urria).
- Unibertsitateen eta Ikerketako Erakunde Publikoen Etika Batzordeen Sareko bilerara joatea (2014ko apirila).
- Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrekin batera, Biosegurtasunaren normalizazioari eta kudeaketari buruzko jardunaldiaren antolakuntzan parte hartzea (2014ko iraila).

7.- Hitzarmenak eta MTAk

Martxan jarri da Etikako Zuzendaritzaren bidez sinatutako hitzarmenen eta MTAen agiritegia.

GIEB: 2 hitzarmen, Bioefekin.

ABIEB: 9 MTA (Material Transfer Agreement).

8.- Beste batzorde batzuekin eginiko bilerak

- Euskadiko IKBErekin, Osakidetzan laginak, diagnostiko probak eta pazienteak biltzeko modua aztertzeko.
- Euskal Biobankuaren zuzendariarekin, laginak aldatzeko hitzarmen espezifikoak berrikusteko.
- Hiru foru aldundien agintari eskudunekin, arau berriaren aplikazioa aztertzeko.
- Beste unibertsitate batzuetako batzordeetako ordezkariarekin.
- Bizkaiko erakunde publiko eta enpresa pribatuetako batzordeetako ordezkari guztiekin, arau berriaren aplikazioa eta koordinazioa lantzeko.
- MAGRAMaren arduradunarekin, animaliekin eginiko esperimentazioari lotutako alderdiak aztertzeko.

9.- Harrera UPV/EHUko batzordeetan

María Gracia Carpena, La Salle Unibertsitateko (Madril) etikako batzordeko kidea. [GIEB](#)

BIOEF Ikerkuntzarako Euskal Biobankuaren zuzendaria eta idazkaria. [GIEB](#)

Foru aldundietako organo eskudunen hiru albaitari ikuskatzaile. [AEEB](#)

Ebaluatuak izan ziren 3 ikertzaile joan ziren batzordeetara, haien ikerketa proiektuak azaltzeko eta zalantzak argitzeko. [GIEB](#), [AEEB](#)

10.- Berritzeak

[GIEB](#): José Ramón Bilbaok (Medikuntza) eta Julen Castellanosok (Kirola) kargua utzi dute, eta Iñaki Garmendia (Politeknikoa), Nerea Lertxundi (Psikologia) eta Javier Yanci (Kirola) izendatu dituzte.

[AEEB](#): Sindi Alonsok (Psikologia), Ana Zubiagak (Zientziak) eta Guillermo Quindósek (Medikuntza) kargua utzi dute, eta Pello Sánchez (Farmazia), Emilio Armaza (Zuzenbidea) eta Larraitz Garmendia (Psikologia) izendatu dituzte.

[ABIEB](#): Javier Garaizar-ek (Farmazia) eta Pedro Grandesek (Medikuntza) kargua utzi dute, eta Iñigo Urrutia (Zuzenbidea) eta Jesús Ciriza (Farmazia) izendatu dituzte.

11.- Arazoak eta konponbideak

[Entsegu klinikoa osasun produktuekin eta GIEBren ebaluazioa](#): gaian aditua den Francisco Abajo jaunari kontsulta bat egin zaio, eta erabaki da GIEBk erabakiko duela ebaluatzen duen ala ez, osasun produktu motaren arabera.

Ikertzaile eskatzaile batek **GIEBko kide bat errefusatu du:** Administrazio Prozeduraren Legea aplikatu da.

Osakidetzari laginak, datuak eta pazienteak biltzeko eskatzea: konponbideak Euskadiko IKBerekin kudeatuko dira.

Burokrazia eta itxaronaldia areagotu dira, animaliak esperimentuak egiten hasteko: arazoaren jatorri zuzena nahitaez aplikatu beharreko estatuko legedia da (53/2013 ED). Itxaronaldia legez ezarritako gutxieneko epera murrizteko, ekintza hauek egin dira:

- Legea autonomia erkidegoan aplikatzeko ibilbide murriz bat proposatzea eta onartzea. Proposamena onartu, eta ezarri da.
- Aldaketa txikiak baldintzatutako aldeko irizpenak ebazteko denbora murriztu da, eta, ikertzailearen erantzunaren ondoren, beste irizpen bat emango da hiru eguneko epean.

Eskatzaile batzuek ez dute ezagutzen legedia eta/ edo AEEBren funtzionamendua:

- Legedia eta AEEBren LPA eskuragarri daude IIEBren webgunean.
- Informazio saioak egin dira, hiru campusetan. Eztabaidak izan dira joandako ikertzaileekin, eta haien zalantza eta arazo ugari konpontzeko baliagarriak izan dira.

Ikerketa proiektuetako parte-hartzaileen erantzukizuna, laneko segurtasunaren arloan: ikertzaile baten zalantzaren aurrean, txostena eskatu zitzaion lege aholkularitzari, eta hark ondorioztatu zuen ikertzaile nagusia laneko segurtasunaren arloko erantzulea dela, ikerketetan.

Biosegurtasunari buruzko prestakuntza: beharrezkotzat jotzen da ikertzaileak bere lanetik eratorritako arriskuei eta aplikatu beharreko prebentzio neurriei buruzko prestakuntza edukitzea (Arrisku Biologikoen Prebentzioari buruzko Legeak adierazitako arrisku biologikoei buruzko prestakuntza). MOOC ikastaro bat bultzatu da UPV/EHUn, agente biologikoekin eginiko ikerketen etikari buruz.

2015EKO PLANA

- **IEB INPRIMAKIAK aplikazioa martxan jartzea.**
- **IEB koadernoak banatzea: posta bat bidaliko zaie sailtako zuzendaritza guztiei eta batzordeburu guztiei, eskatutako koaderno guztiak helarazteko.**
- **Proiektuen jarraipena: IEBk proiektuen jarraipenerako galdetegi bat proposatuko du, eta hiru batzordeek aztertuko dute.**
- **Batzordeetako kideei prestakuntza mintegi bat emango zaie, ikerketako etika batzordeek metodologia ebaluatzeko moduari buruz.**
- **ABIEBko bi eskuliburu egingo dira, unibertsitateko kideei alderdi hauek azaltzeko: "AB eta GAOrekin egindako ikerketen etika eta ebaluazioa" eta "Ikerketa erakundeen arteko laginen transferentzia".**
- **Gradu amaierako lanak: hiru batzordeentzat berdina izango den gomendioen dokumentu bat landuko da, eta horri buruzko prestakuntza emango da hiru campusetako fakultate eta eskoletan.**
- **MOOC ikastaro bat egingo da, unibertsitateko ikerketen etikari buruz.**

ERANSKINA IIEBren kudeaketa txostena

2014/01/01etik 2014/12/31era

Edukia

Edukia.....	8
IIEBren datu orokorrak	9
Jasotako memoriak.....	9
Eskaerak, sailen arabera.....	9
Batzordeen ebaluazioak	10
AEEBren datuak	12
Jasotako memoriak.....	12
Ebaluatutako memoriak	12
Guztira egindako ebaluazioak	13
AEEBren datuak	14
Jasotako memoriak.....	14
Ebaluatutako memoriak	14
Ebaluazio osoak	15
GIEBren datuak	16
Jasotako memoriak.....	16
Ebaluatutako memoriak	16
Ebaluazio osoak	17


IIEBren datu orokorrak

Jasotako memoriak

Memoriak guztira	187
AEEBrentzako memoriak	69
ABIEBrentzako memoriak	41
GIEBrentzako memoriak	77

Eskaerak, sailen arabera

Saila	Batzordeak			Memoria k guztira	%
	AEEB	ABIE B	GIEB		
Zelulen Biologia eta Histologia	7	7	4	18	9,63
Landareen Biologia eta Ekologia	1	1		2	1,07
Biokimika eta Biologia Molekularra	1	1	1	3	1,60
Konputazio Zientzia eta Adimen Artifiziala			1	1	0,53
Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpidearen Didaktika			1	1	0,53
Ekonomia Aplikatua I			1	1	0,53
Gorputz eta Kirol Hezkuntza			6	6	3,21
Erizaintza		1	3	4	2,14
Erizaintza II			4	4	2,14
Medikuntza eta Kirurgia Espezialitateak			2	2	1,07
Estomatologia		1	4	5	2,67
Farmazia, Elikadura, Teknologia eta Animalia Ekoizpena	10	10	3	23	12,30
Farmakologia	14	5	3	22	11,76
Ingeles eta Aleman Filologia			1	1	0,53
Filologia	4	4	1	19	10,16
Analisi Ekonomikoaren Oinarriak II			1	1	0,53
Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia		1	2	3	1,60
Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia	2	2		4	2,14
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak			2	2	1,07
Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publikoa			1	1	0,53
Neurozientziak	13	3	5	21	11,23
Enpresen Antolakuntza			1	1	0,53
Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamendua			1	1	0,53
Oinarrizko Psikologia Prozesuak eta Haien Garapena	6	3	5	14	7,49
Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia			2	2	1,07
Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia			4	4	2,14
Soziologia II			1	1	0,53
Bestelakoak	6	2	7	15	8,02
Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia	5			5	2,67
Guztira	69	41	7	187	100,0




Farmazia, Elikadura, Teknologia eta Animalia Ekoizpena sailak egin ditu eskaera gehien (23), eta haren ondoren Farmakologia (22) eta Neurozientziak (21) sailak daude.

Batzordeen ebaluazioak

Memoriak guztira.....	192
Ebaluatutako memoriak.....	178
AEEB	66
ABIEB	44
GIEB	68
Ebaluatu gabeko memoriak	14

Oharra: 2014an jasotako memorien (187) eta ebaluatutako memoriak + ebaluatu gabeko memoriak batuketaren (192) arteko desberdintasuna azaldu daiteke urte horretan 2013an igorritako zenbait memoria ebaluatu zirelako.

2014KO MEMORIAK



AEEBren datuak

Jasotako memoriak


Jasotako memoriak guztira	187
AEEBrentzako memoriak.....	69
Ebaluatuak.....	66
Ebaluatu gabeak.....	3

Ebaluatutako memoriak

AEEBk ebaluatutako memoriak jasotako amaierako irizpenari buruzko xehetasunak (2014/12/31).

Memorien zenbaketa	Eskaera kopurua				Guztira	
	1	2	3	4		
Irizpena						
Aldekoa	1	1	1		3	%4,55
Aldekoa, baina zuzenketa txiki baldintzapean	31	16	5	2	54	%81,82
Zuzendu beharrekoak	7	1			8	%12,12
Ez dagokio ebaluatzea	1				1	%1,52
Guztira	40	18	6	2	66	

Aldeko irizpena edo zuzenketa txiki baldintzatutako aldeko irizpena jaso zuten 57 memoriatik, 37k jaso zuten azkenean IIEBren aldeko txostena, 2015/06/28an. Hau da, 54tik soilik 34k egin zituzten eskatutako aldaketak (%62,9).



Aldeko irizpena edo zuzenketa txiki baldintzatutako aldeko irizpena jaso zuten memoriak osoaren %86,37 dira (66tik 57).

Horien artetik, %85ek baino gehiagok (%85,96) 1. edo 2. eskaeran jaso zuten. Aldeko

irizpena edo aldeko irizpen baldintzatua lortu aurretik, memoria bakoitza batez beste 1,79 aldiz ebaluatu da.

Guztira egindako ebaluazioak

Egindako ebaluazioen kopuruak hobeto erakusten du batzordearen lan karga; izan ere, memoria asko hainbat aldiz ebaluatu behar izaten dira, aldeko irizpena edo zuzenketa txikiek baldintzatutako aldeko irizpena eman aurretik.

Hurrengo taulan, batzordearen bilera bakoitzean egindako ebaluazioak jasotzen dira.

Data	Aldekoa	Aldekoa, baina zuzenketa txikien baldintzapean	Ez dagokio ebaluatzea	Zuzendu beharrekoak	Guztira
2014/01/13				6	6
2014/02/10		1		1	2
2014/02/17	1	7		3	11
2014/03/10		5			5
2014/04/07		4		4	8
2014/05/12				5	5
2014/06/09	2	5		6	13
2014/07/02		5		4	9
2014/09/08		8	1	5	14
2014/10/13		4		1	5
2014/11/11		5		3	8
2014/12/10		11		3	14
Guztira	3	55	1	41	100

AEEBren datuak

Jasotako memoriak


Memoriak guztira	187
ABIEBrentzako memoriak	44
Ebaluatuetak.....	44
Ebaluatu gabeak.....	0

Ebaluatutako memoriak

ABIEBk ebaluatutako memoriak jasotako amaierako irizpenari buruzko xehetasunak (2014/12/31).

Memorien zenbaketa	Eskaera kopurua				Guztira	
	1	2	3	4		
Irizpena						
Aldekoa	4	5			9	% 20,54
Aldekoa, baina zuzenketa txikien baldintzapean	17	9	1		27	% 61,36
Zuzendu beharrekoak	7				7	% 15,90
Ez dagokio ebaluatzea	1				1	% 2,27
Guztira	29	14	1		44	

Aldeko irizpena edo zuzenketa txikiek baldintzatutako aldeko irizpena jaso zuten 36 memorietatik, 32k jaso zuten azkenean IIEBren aldeko txostena, 2015/06/28an. Hau da, 23tik soilik 27k egin zituzten eskatutako aldaketak (% 85,1).



Aldeko irizpena edo zuzenketa txikiek baldintzatutako aldeko irizpena jaso zuten

memoriak osoaren % 81,9 dira (44tik 36).

Horien artetik, % 95ek baino gehiagok (% 97,22) 1. edo 2. eskaeran jaso zuten. Aldeko irizpena edo aldeko irizpen baldintzatua lortu aurretik, memoria bakoitza batez beste 1,48 aldiz ebaluatu da.

Ebaluazio osoak

Egindako ebaluazioen kopuruak hobeto erakusten du batzordearen lan karga; izan ere, memoria asko hainbat aldiz ebaluatu behar izaten dira, aldeko irizpena edo zuzenketa txikiek baldintzatutako aldeko irizpena eman aurretik.

Hurrengo taulan, batzordearen bilera bakoitzean egindako ebaluazioak jasotzen dira.

Data	Aldekoa	Aldekoa, baina zuzenketa txikien baldintzapean	Ez dagokio ebaluatzea	Zuzendu beharrekoak	Guztira
2014/01/17	2	2		3	7
2014/03/14		2			2
2014/04/28		1		5	6
2014/05/16	1	2		3	6
2014/06/13	3	4	1	2	10
2014/07/11	3	5		2	10
2014/09/12		5			5
2014/10/09		3		3	6
2014/11/14		3		2	5
Guztira	9	27	1	20	57

GIEBren datuak


Jasotako memoriak

Memoriak guztira	187
GIEBrentzako memoriak.....	77
Ebaluatuetak.....	76
Ebaluatu gabeak.....	3

Ebaluatutako memoriak

Memorien zenbaketa	Eskaera kopurua				Guztira	
	1	2	3	(zuriz)		
Irizpena						
Aldekoa	5	1	1		7	% 9,21
Aldekoa, baina zuzenketa txikien baldintzapean	23	19	4		46	% 60,53
Zuzendu beharrekoak	12	3		1	16	% 21,05
Ez dagokio ebaluatzea	7				7	% 9,21
Guztira	47	23	5	1	76	
	% 61,84	% 30,26	% 6,58	% 1,32		

Aldeko irizpena edo zuzenketa txikiek baldintzatutako aldeko irizpena jaso zuten 53 memorietatik, 45ek jaso zuten azkenean IIEBren aldeko txostena, 2015/06/28an. Hau da, 46tik soilik 38k egin zituzten eskatutako aldaketak (% 82, 60).



Aldeko irizpena edo zuzenketa txikiek baldintzatutako aldeko irizpena jaso zuten memoriak osoaren % 69,74 dira (76tik 53).

Horien artetik, % 90ek baino gehiagok (% 90,56) 1. edo 2. eskaeran jaso zuten. Aldeko irizpena edo aldeko irizpen baldintzatua lortu aurretik, memoria bakoitza batez beste 1,50 aldiz ebaluatu da.

Ebaluazio osoak

Egindako ebaluazioen kopuruak hobeto erakusten du batzordearen lan karga; izan ere, memoria asko hainbat aldiz ebaluatu behar izaten dira, aldeko irizpena edo zuzenketa txikiek baldintzatutako aldeko irizpena eman aurretik.

Hurrengo taulan, batzordearen bilera bakoitzean egindako ebaluazioak jasotzen dira.

Data	Aldekoa	Aldekoa, baina zuzenketa txikien baldintzapean	Ez dagokio ebaluatzea	Zuzendu beharrekoak	Guztira
2014/02/13		4	1	3	8
2014/03/13		8	1	2	11
2014/04/10	1	4		7	12
2014/05/15	1	4		6	11
2014/06/12	2	6		6	14
2014/07/08		5	1	3	9
2014/09/18	3	6	1	1	11
2014/10/16		1	1	7	9
2014/11/13		2	3	2	7
2014/12/11				3	3
Guztira	7	40	8	40	95